

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Gure minbizia

Joseba Barriola

Gure santu Bitoriano Gandiaga / Biziazen minnez bizi izan zena, / Lurrez, suaz, urez eta haizez hitza euskalduna sortu zuena, / «hilgo naz. Aleluia» —azken poematik hartua— / Minbiziak harrapatua eta eramana, Aizkorritik izar bideetan.

Gure iraultza egile Joxemi Zumalabe / Ekin-tzaren eder-minez igurtzia / Gogoz, izerdiz, harremanez eta irekitasunez / Euskaldunon eguneroko hitza argitu zuena, / «Maitasunez urtzen ari naiz» —azken kartatik hartua— / Minbiziak harrapatua eta eramana, Aralar-tik, izarren bideetan.

Gure pentsalari Eusebio Osa / Haurren irrifarez maitez mindua / Bizi-nahiez, ezagutzaz, atseginez eta kontzientziaz / Euskal hitza berotu zuena / «.....» —azken hatsatik hartua— / Minbiziak harrapatua eta eramana, Gorbeiatik, izar bideetan.

Bitoriano, Joxemi, Eusebio, minbiziak harrapatuak eta eramana, izar bideetan barna Lazkao Txikik antolatutako bertso-afariaren mahaian bildu dira, bertsoaren umorez, argitasunez eta berotasunez, euskaltzaleek minbiziak kutsatzeko duten jorerari buelta emateko antidotoa prestatzeko.

Arantzazun, 2001eko otsailaren 22an, Lazkao Txikiren hiletetan Lopategik botatako bertsoa gogoan harturik.

Mani+Festa

Xanti Begiristain • IRUÑEA

Berriz ere euskararen edonongo aurkariak, eta bereziki Nafarroako boterean dauden agintari atzerakoiak, bultzatu eta behartu gaituzte ateratzera kalera euskararen defentsan. Otsailaren 24an, arratsaldeko 17:30ean, euskaltzale orok hitzordua du Golem zinema aretoan aurrean, euskarari bere atxikimendua adierazteko.

Aldez aurretik badakigu han ez direla agertuko UPN, PSN, PP eta UAko politi-



galdeiozu...

Maiatzeko hauteskundeen ondoren hasiko den legegintzaldian Ararteko gisa jarraitzea gustatuko litzazizue? Nolako egoera izango da, zure ustez, hauteskundeen ondoren? Joan Lasa (Arrasate)



MERTXE AGUNDEZ

EAEko jarduneko arartekoa

Garai latza da hau, eta arduraz jardun behar dugu, zintzotasuna eta elkar ulertzea bizitza publikoan finka daitezten.

Etorkizuna oraintxe hasita eraiki behar dugu, eta ez dugu jasoko erein gabekorik. Nire iritziz, elkarrizketa bezalako hitz batzuk esanguraz janzten ahalegindu behar dugu. Oso garrantzitsua da guk bezala pentsatzen ez dutenen iritzi eta iradokizunak entzuten ikastea, baita elkartu eta konprometitzeko zubiak sortzeko gai izatea ere, eguneroko arazoei aurre egiteko. Baina, batez ere, beren ideia politikoengatik jazarpena pairatzen dutenei gure laguntza eta elkartasuna helarazteko gai izan behar dugu, eta haiei jakinarazi mehatxatuak sentitzen diren bitartean ez garela aske izango.

Otsailaren 26tik aurrera **Javier Armentia • Iruñeko Planetarioko zuzendaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak.

kariak. CDN eta IU-EBkoek auskalo zer eginen ote duten. Dena dela, batzuk Nafarroako Demokraten Elkargunekoak izanik, eta besteak, Nafarroako Ezker Batuak, definizioz, behintzat, bada, nik uste dut logikoena kale-agerraldian parte hartzea izan litzatekeela. Baina, beno, ikusi egin behar.

Hala ere, burua pixka bat erabiliz, esan beharko genuke Miguel Sanzek manifestazioaren lehen ilaran beharko lukeela, bere burua oso demokratiko eta jasanberatzat jotzen duelako. Beste horrenbeste Juan Jose Lizarberentzat. Pankarta eramaten joan beharko luke, Nafarroa eta nafarra den guztia sostengatzen omen duela. Yolanda Barcinak berdin egin beharko luke, Iruñea gogotik maite duelako, antza, eta gainera, zientzia emakumetzat hatzen duelako bere burua. Rafael Gurreaz zer esanen dugu? Bada, manifestaziokoak animatzen eta aupatzen ibili beharko luke-

ela, berak balio etikoak eta unibertsalak arrunt gustukoak omen dauzkalako. Laguna jaunak, berriz, autobusak jarri beharko lituzke doan, herrietako ikasleak eta beren gurasoak erraztasunez etor daitezten, bera oso gizon liberala omen delako eta aldi berean izugarri estimatzen dituelako, dirudienez, aniztasuna eta dibertsitatea, batez ere, ardoena. Jarraitzeko, Juan Cruz Alli, halaber, ez dut inondik ere ahazten, jakina, honek manifestazioaren erdi-erdian joan beharko luke bere txapel eta guzti, agerraldiari euskal kutsu handitxoagoa emateko. Baina, ametsak amets, zoritxarrez, bada, kigu hemengo politikaritzo horiek ez dutela horrenbesteko mailarik.

Euskara UPNren aburuz

Jesus Maria Aragon EKAKo kidea • IRUÑEA
Nafarroako Administrazio Publikoetan

vascuence-aren erabilpena arautzen duen dekretuaren kontra, nahikoa esana dago eta, eskubide orokorra gaurkotuz, helegite bat jarrita dago. Nik neuk esango nieke Administrazioari eta Nafarroari, hizkuntza batek, bizitzeko, komunitate hiztun bat behar duela izan; hauxe baita garrantzitsua. Dena den, gaurko Administrazioak era desegokian kudeatzen du gaia. Alde batetik, kontuan hartu dugu Administrazio hau ez dela betiko, eta, beste aldetik, propioz defendatzeko naturala den erreazioari eragingo dio dekretu malapartatu horrek.

Halaber, dekretu murriztaile horrek, zikoizkeria erakustez gain, amorraziotik sortua ematen du. Kultura baten adierazpenak murriztean, kulturen arteko harremanak tratatzen ditu, baita kultura desberdinetako biztanleak ere; azken finean, giza harremanak tratatzen ditu. Historian zehar beti berdin gertatu da: zabaldu ordez, eskubideak murriztu egin direnean, egoera bat konpondu baino gehiago, arazoak sortu izan dira.

UPNk edozein arrazonamendu erabiltzen duela edozertarako, gaineratuko nuke. Adibidez, lehengo egunean Gurrea jaunak dekretua justifikatzeko edo, eta *Vascuencearen legearen* kontra ez zela adierazteko, ezta euskararen kontra ere, Iruñean Bilbon baino seinale eta errotulu gehiago dagoela ere esan zuen. Horrek ez du ekidin, ordea, PPrekin batera, Eusko Jaurlaritzak duen Politika Linguistikoa erasotzea eta gaitzestea.

Bukatzeko, iradokizun bitxi bat. Dekretu horrekin UPNk *Vascuencearen legea* garatu omen du norabide batean; orain, legean parekidetasuna itxura emateko, beste ildo batean garatuko duela, bestelako dekretu batekin, espero dezakegu, hots, «zona no vascofona» deitutakoan jarri diren seinale eta errotulu berriak elebidunak izango dira, baita paper ofizial elebidunaren erreserba bat sortzea bertako nafar baten euskaraz harremanetan sartu nahi duenerako «zonalde vascofonoaren» instituzio ofizial batekin, badaezpada.

montxo

